

Exposición 'Cine y Arte' en Montehermoso

REFERENCIAS III. Cine y Arte

Ciclo de exposiciones del Centro de Documentación

« Para mí, el cine es un arte del que todavía espero alguna sorpresa».
("El destino del cine como arte". Entrevista a Jacques Rancière con motivo de la publicación de «Malestar en la estética»).

Como complemento al programa de actividades de extensión cultural, el Centro de Documentación inició en el 2013 el proyecto "Referencias", un ciclo de exposiciones con un doble objetivo: por una parte, dar a conocer el conjunto de los fondos documentales, bibliográficos, sonoros y/o audiovisuales, disponibles en el centro y, por otra, mostrar la evolución de las principales prácticas artísticas de los últimos años.

De este modo, "Referencias" se perfila como una aproximación a diferentes esferas y transformaciones de la producción artística contemporánea, a través de los fondos documentales compilados en el Centro de Documentación. Un medio para estimular la reflexión y el debate público, y dar visibilidad al amplio fondo bibliográfico que se guarda en el centro.

Las relaciones entre cine y arte son el hilo conductor de esta nueva edición. A través de una amplia selección de fondos bibliográficos - libros, revistas, catálogos y artículos- se recorre la historia y teoría de un medio, nacido como entretenimiento popular, y al que hoy se conoce como "el séptimo arte". Al igual que en ediciones anteriores, la muestra se complementa con una selección de trabajos, de artistas y directores de cine del último siglo, que reflejan la hibridación existente entre la creación cinematográfica y el resto de las expresiones artísticas. La integración de corrientes y recursos artísticos en el cine, que amplían y transforman la mirada del público, va paralela a las influencias y aportaciones del cine en las demás artes visuales.

Todos los fondos expuestos se conservan en el Centro de Documentación, están disponibles para su consulta, y sus datos bibliográficos son accesibles a través del catálogo online.

Zinema eta Artea' erakustaldia, Montehermoso Kulturgunean

ERREFERENTZIAK II. Artea eta Zinema

Dokumentazio Zentroaren erakusketa zikloa

"Oraindik ere ezustekorik espero dut zinematik». ("El destino del cine como arte". Elkarrizketa Jacques Rancièrekin, Malestar en la estética bere liburuaren aurkezpenaren aitzakian).

Kultura zabaltzeko jarduera programaren osagarri gisa, Dokumentazio Zentroak "Erreferentziak" erakusketa zikloa jarri zuen martxan 2013an, helburu bikoitza lortzeko asmoz: alde batetik, zentroan dauden dokumentu funtsen berri ematea (bibliografikoak, soinuuzkoak eta/edo ikus-entzunezkoak) eta bestetik, azken urteetako arte jarduera nagusien bilakaera erakustea. Horrela, bada, "Erreferentziak" gaur egungo arte ekoizpenaren eremu eta eraldaketa desberdinetara hurbilduko da, Dokumentazio Zentroan bildu diren dokumentu funtsen bidez. Hausnarketa eta eztabaida publikoa piztarazteko tresna izan nahi du, eta zentroak gordetzen duen bibliografia funts handia ezagutarazi. Zinemaren eta artearen arteko harremanak dira edizio berri honen hari eroalea. Funts bibliografiko sorta zabal batek (liburu, aldizkari, katalogo eta artikuluak), berez entretenimendu herrikoi gisa jaio zen, baina gaur egun "zazpigarren artetzat" jotzen den hedabide baten historia eta teoria ezagutzeko aukera eskainiko digu. Aurreko edizioetan bezala, erakusketa azken mendeko zinemaren artisten lanekin osatuko da, zinemaren eta gainontzeko arte adierazpenen arteko hibridazioaren isla. Joera eta korronte artistikoak zineman integratu dira, hartara ikusleen ikuspegia zabaldu eta eraldatzen lagunduz. Aldi berean, kontuan hartzekoak dira baita zinemaren ekarpenak gainontzeko ikus-arteetan. Erakusketan izango diren funts guztiak Dokumentazio Zentroan daude eta bertan kontsultatu daitezke, gainera haien datu bibliografikoetara online katalogoaren bidez hel daiteke.